

LANBIDE HEZIKETAKO MATERIALAK ITZULTZEKO EDO ZUZENTZEKO ESKAERAK ARGIBIDEAK

2023an ikasmaterialak itzultzeko edo zuzentzeko eskaerak jaso dira

Eskaera egin ondoren urriaren 28an bukatu zen eskaerak bidaltzeko epea. **Orain eskaerak barematzeko aldia da eta barematutakoaren arabera eskaera guztietatik zer itzuli aukeratu da.**



Barematzerakoan, hau da, itzultzeko ikasmaterialak aukeratzeko orduan irizpide hauek izango ditugu kontutan:

- Euskaraz ematen den modulua izatea
- Goi Mailako Heziketa Zikloa izatea (goi mailarako eta erdi mailarako, bietarako, egokiak diren materialek lehentasuna dute)
- Euskaraz matrikulatutako ikasle kopurua
- Euskarazko materialik ez izatea
- Liburu osoa izatea
- Irakasle artean adostua izatea
- Ziklo batetan baino gehiagotan erabiltzea

Eskaeren erantzuna: eskaera guztiak banan-bana erantzungo dira, eta eskatzaile bakoitzari e-maila bidaliko zaioa onartua izan den ala ez adieraziz.

Laneki katalogoan argitaratuko da 2022-2023 ikasturteko material berrien zerrenda



Euskara, batzen gaituena!


Hizkela jardunaldian eduki interesgarriak eta praktika eredugarriak partekatu ziren

Jardunaldia online ikusi dezakezu, hemendik: [NAHIERAN](#)

Argazki galeriara joan, hemendik: [ARGAZKITAN](#)

Jardunaldiko aurkezpenen euskarriak eskuratu, hemendik: [jakinbai.eus](#)

Hizkela albisteak: [ALBISTEA](#)





LANBIDE HEZIKETAKO EGUNEAN BEHIN

1459 parte-hartzaile daude Lanbide Heziketako ikasleen Egunean Behin lehiaketan

Dagoeneko 4 ikasle saritu daude



Astero 100€ irabazlearentzat
(urriak 3 eta abenduak 4a bitartean)

- 1 Euskal Autonomi Erkidegoko Lanbide Heziketako ikaslea izan
- 2 *Egunean Behin* App-a instalatu
- 3 Kontua sortu
- 4 Taldeak atalean LH Duala Euskaraz taldera gehitu 020CC5 giltza sartuta
- 5 ... eta jokatzen hasi!



•Ikastetxeko ikasleak informatu eta parte-hartzera animatu!

•Ikastetxean jartzeko kartela, hemen: [KARTELA](#)



ARABAKO IKASLEEN ETA GAZTE EKINTZAILEEN ARTEKO TOPAKETAK

Lansarean proiektuaren barruan, Arabako ikasleen eta gazte ekintzaileen arteko topaketa antolatu du Bai Euskarari Elkarteak, Egibide ikastetxean

Gazteek laneratzean izan ditzaketen aukerak eta erronkak identifikatu dira

lansarean bai EUSKARARI ELKARTEA LAN ETA BIZI EUSKARAZ

ARABAKO IKASLEEN ETA GAZTE EKINTZAILEEN ARTEKO TOPAKETA

<p>GARIKOITZ DE DIEGO Automatizazio eta Robotika Industrialeko ikaslea</p>	<p>IZARRAITZ ZULUETA Politika Zientziak eta kudeaketa publikoko ikaslea</p>	
<p>GETARI GARCIA DE EULATE Langilea</p>	<p>ANDER ELORZA Ekintzailea</p>	<p>REGINA RIVAS Enplegu teknikaria Gasteizko Udalean</p>

Nahieran ikusi zenezakete hemendik

